

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

4002

AGINDUA, 2022ko uztailaren 26koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez egiten baita enpresa-egonaldiatarako beken deialdia, 2022-2023 ikasturtean, irailetik martxora bitartean, lantokiko prestakuntzako modulua egiten duten lanbide-heziketako ikasleentzat.

Datozen urteetan, aldaketa handiak, oso sakonak eta oso azkarrak biziko ditugu. Aldaketa horiek aukera handiak irekiko dituzte, eta hain garrantzitsuak izango dira ezen eragina izango baitute gure bizimoduan, bai bizitza pertsonalean, bai profesionalean. Enpresa-kudeaketako eredu-aldaketek, aldaketa demografikoek, globalizazioa bezalako faktoreek eta gizarteak bizi duen aurrekaririk gabeko osasun-egoera globalak eragin zuzena izango dute hezkuntza- eta lanbide-sisteman, eta inpaktu nabarmena izango du horrek prestakuntzan eta enpleguan, zeina zehatz-mehatz ebaluatu behar baita. Horrek guztiorrek behartzen du egin beharreko eraldaketak egitera sortzen diren erronka berriei aurre egiteko prest egon dadin lanbide-heziketa eta, zehazki, lantokietako prestakuntza.

Ildo horretan, lanbide-heziketak aurrehartze-jarrera izan behar du, aitzineratuz eta beste gisa batean lan egiteko premia erantsian zentratuz bere indarrak, beste helburu eta xede batzuekin, beste antolaketa batekin, etorkizunaren ikuspegi moderno batekin eta egiteko modu ezberdina bilatzeko premiarekin, pertsonen eta erakundeen arteko, baina, batez ere, LHko zentroen eta enpresen arteko lankidetzeta eta kooperazioa oinarri duen modu bat, lanbide-heziketa lan-merkatuaren berregituraketara egokitzeko gisan, etengabeko eta beharrezko elkarrekintza sortuz.

Eusko Jaurlaritzaren jarduera-esparru estrategikoak lanbide-heziketa funtsezko oinarritzat hartzen du pertsonetikiko konpromisoaren barruan, eta, beraz, baita hazkunde iraunkorrekiko eta giza garapenarekiko konpromisoaren barruan ere. Lanbide-heziketak hezkuntzaren ingurune naturala du abiapuntu, baina inpaktu handia du euskal ekonomiaren beste arlo batzuetan ere, hala nola langileen enplegarritasunean bai enpresen lehiakortasunean.

Belaunaldi berriek konpetentzia, jarrera eta esperientzia espektro zabala eskuratu beharko dute bai prestakuntza-zentroan bai lantokian, eta gizarte-erronkaren bidez estimulatuko da konpetentzia horien garapena, pentsamendu kritikoa eta eraikitzailea sustatuta. Enpresako praktika funtsezko faktorea da barneratze horretarako, eta, testuinguru horretan, lantokiko prestakuntzaren modulua da lanbide-konpetentziak eta giza konpetentzia batu, garatu eta balidatzen dituen gune bat. Hori dela eta, lanpostu berriak arrakastaz lortzeko, etengabe egokitzeko aukera ematen duten gaitasunak izan beharko dituzte pertsonak. Egokitzeko, autokudeatzeko eta denbora laburrean ezagutza berriak etengabe eskuratzeko gaitasunak direla eta, funtsezko eta ezinbesteko faktorea da enpresako egonaldia.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 28ko 4/2018 Legearen helburua da: Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide-heziketako politikak garatzeko esparrua arautzea, garrantzi berezia baitute sistema ekonomikoan, Euskadik helburu duen eredu ekonomiko berrian egoera egoki batean jartzeko gai izan dadin; horretarako, sustatu beharreko ekonomiak hazkunde adimendun, iraunkor eta integratzaile bat hartu behar du oinarritzat eta, aldi berean, gizarte-kohesio handiagoa ahalbidetuko duen kalitateko enplegu egonkor bat sortu behar da.

Enpresaren eta ikastetxeetako prestakuntzaren artean azken urteotan garatu diren txanda-katze-esperientzien balorazio positiboa dela eta, ekainaren 28ko 4/2018 Legetik ideia hau sortu da, besteak beste: gure produkzio-sistemarekiko loturak sustatzen jarraitzea eta, horretarako, enpresa-sarearen eta lanbide-heziketako zentroyen arteko lankidetzaren indartzea, balioa elkarrekin sortzeko xedez.

Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoak, 6. artikuluan, enpresen, eragile sozialen eta beste entitate batzuen arteko lankidetzaren erroak ezartzen ditu, eta adierazten du ikasleek enpresatan praktika profesionalak egitea ahalbidetuko duela prestakuntzak.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, 42.2 artikularen 3. paragrafoan, heziketa-ziklo guztietarako nahitaez ezartzen du lantokietako prestakuntza praktikoa dualaren fase bat; eta Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen 32/2008 Dekretua aldatzen duten uztailaren 29ko 1147/2011 Errege Dekretuak eta otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuak lantokiko prestakuntzaren modulua jasotzen eta garatzen dute. Modulu hori titulua bakoitzerako zehazten da titulua sortzeko errege-dekretuan eta modulu bakoitzari esleitutako FCTS kreditu-kopurua eta iraupen-orduak finkatzen dituen curriculumak ezartzen duen dekretuan.

Halaber, urriaren 24ko 1493/2011 Errege Dekretuan dago araututa zein diren prestakuntza-programetan parte hartzen duten pertsonak Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean sartzeko baldintzak, Gizarte Segurantzaren sistema eguneratzeari, egokitzeari eta modernizatzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoa garatzeko, bai eta azaroaren 31ko 1543/2011 Errege Dekretuan xedatutakoaren babesean lanekoak ez diren praktikak egiten dituzten pertsonak sartzeko baldintzak ere.

Horregatik guztiagatik, aintzat hartuta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua eta dirulaguntzei buruz indarrean dagoen legeria, hain zuzen ere azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onesten duen Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen testu bategineko VI. titulua eta VII. tituluko III. kapitulua, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Deialdiaren xedea.

1.– Agindu honen xedea da: enpresako egonaldi-beketarako deialdia egitea, lantokiko prestakuntzako modulua irailtik martxora bitartean (2022-2023ko ikasturtea) egiten duten eta 2023ko martxoan ebaluatzen diren lanbide-heziketako ikasleentzat.

2.– Diruz lagunduko den enpresa-egonaldiak hilabetetik hiru hilera bitarteko iraupena izango du, eta lantokiko prestakuntzako modulua egin ondoren egingo da.

3.– Egonaldi hori egiteko, enpresak eta ikastetxeak izenpetutako lankidetzaren hitzarmenean ezarritako baldintzak bete beharko dira; hitzarmen horren eredia agindu honen II. eranskinean dago.

2. artikulua.– Beka-kopurua eta zenbatekoa.

1.– 487 beka emango dira, eta onuradun bakoitzak, gehienez ere, 1.800 euro garbi jasoko ditu (600 euro hilean).

2.– Beka bakoitzak urriaren 24ko 1493/2011 Errege Dekretuan ezarritako kotizazio-araubidea bete beharko du (1493/2011 Errege Dekretua, urriaren 24koa, prestakuntza-programetan parte hartzen duten pertsonak Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean sartzeko baldintzak eta betebeharrak arautzen dituena), Gizarte Segurantzako sistema eguneratzeari, egokitzeari eta modernizatzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoa garatzeko. Beraz, beka-onuradun bakoitzeko kostua 252,88 eurokoa izango da.

3. artikulua.– Aurrekontu-zuzkidura.

1.– Deialdi honetara bideratzen den kredituaren gehieneko zenbateko osoa bederatziehun eta laurogeita hemeretzi mila zazpiehun eta berrogeita hamabi euro eta berrogeita hamasei zentimo izango da (999.752,56 €).

2.– Bekak (487) lanbide-heziketako prestakuntza-mailaren arabera banatuko dira, honako proportzio honetan:

- Beken % 20, hau da, 97 beka, Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleentzat.
- Beken % 50, hau da, 244 beka, Erdi-mailako heziketa-zikloetako ikasleentzat.
- Beken % 30, hau da, 146 beka, Goi-mailako heziketa-zikloetako ikasleentzat.

3.– LHko prestakuntza-maila bakoitzean eskainitako plaza guztietatik, % 5 gordeko da eska-bidearen egunean % 33ko desgaitasuna edo handiagoa dutenentzat. Hurbileneko zenbaki osora biribilduko da, eta 24 plaza gordeko dira guztira.

4.– Prestakuntza-maila bati edo batzuei esleitutako beka guztiak ez badira ematen, esleitzeke geratzen direnak irizpide proportzional bati jarraituz emango dira, aurreko zenbakian adierazitako portzentajeen arabera.

4. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

1.– 2022-2023ko ikasturtean bigarren mailan matrikulatuta egotea eta lantokiko prestakuntzako modulua irailetik abendura bitartean egitea.

2.– Enpresak interesa izatea onuradunak egonaldia bertan egiteko. Enpresaren interes hori gauzatuko da II. eranskineko lankidetzaz hitzarmena sinatuta.

3.– Ez izatea 30 urtetik gora, 2022ko abenduaren 31n, salbu eta % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonen kasuan, horiek ez baitute adin-mugarik izango.

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 eta 6. artikulua eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.7 artikulua aplikatzeko, eskabidearekin batera erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu behar da, honako betebeharrak egiaztatzeko:

a) Eskatzaileak ez duela dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko zigor- eta administrazio-arloko debekurik, ez eta laguntzak jasotzeko legezko debekurik ere, espresuki barne hartuta sexu-bereizkeriaren ondoriozkoak, bat etorritik Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoarekin.

b) Eskabideko eta harekin batera doan dokumentazioko datuak egiazkoak direla, eta betetzen direla laguntza horiek jasotzeko indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak.

c) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan zehaztutako egoeretan ez dagoela.

d) Eskabidearen berri ematea, eta, hala badagokio, jakinaraztea helburu bererako dirulaguntzarik, laguntzarik, diru-sarrerarik edo baliabiderik jaso izana bestelako administrazio batzuetatik edo erakunde publiko zein pribatutatik.

e) Enpresekin izenpetutako hitzarmenak Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzaren eskura jarri direla programak onartzeko erabilitako aplikazio elektronikoa.

5. artikulua.– Eskabideak.

1.– Eskabideak izapidetzeko jarraibideak eskuragarri dituen beken informazio-fitxa, eskabidearen formulariora sartzeko erabiltzen dena eta erantzukizunpeko adierazpenak eta ereduak dituen, helbide honetan eskuratu daiteke: www.euskadi.eus/servicios/1058705. Modu hauetan eskuratu daiteke:

a) Bitarteko elektronikoz, hezkuntza-arloko eskumena duen sailak horretarako gaitutako aplikazio informatikoaren bidez, kasuan kasuko dokumentazioa erantsita. Horretarako, ziurtagiri digitalaren bidez identifikatu behar da helbide honetan:

<https://www.hezkuntza.net/y44BecPolCieWar/y44MantenimientosJSP/y44LoginF.do?idioma=es>

b) Aurrez aurre. Eskabidea bete beharra dago, email-eko identifikazioarekin (posta elektronikoa eta pasahitza), esteka honetan:

<https://www.hezkuntza.net/y44BecPolCieWar/y44MantenimientosJSP/y44LoginF.do?idioma=es>

Eskabidea bete ondoren, inprimatu, sinatu eta aurkeztuko da.

– 2022-2023 ikasturtean matrikulatuta dagoen ikastetxean, edo

– Zuzenean zerbitzuan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako moduetariko edozeinetan, lege horretan ezarritako baldintzen arabera eta zein ikastetxetarako den adierazita. Dokumentazioa postetxean aurkeztea aukeratuz gero, gutun-azal irekian aurkeztuko da, postetxeko langileek, ziurtatu baino lehen, data eta zigilua jar diezaioten eskaera-orriari. Hala egin ezean, ikastetxean sartu den datan aurkeztu dela ulertuko da. Zuzenean zerbitzuan eskabideak aurkezteko, aldeztu aurretik hitzordua eskatu beharko da, <https://www.euskadi.eus/cita-previa-zuzenean> helbidean, edo, bestela, aurretiazko hitzordua eskatu edo ezeztatzeko telefonoan: 945 01 90 00.

2.– Adingabeak badira, amak, aitak edo legezko tutoreak sinatu beharko du eskabidea.

3.– Eskabide hori aurkezten bada, berez onartzen dira deialdiaren oinarriak.

4.– Eskabideari dokumentazio hau erantsi behar zaio.

– Ikasleek «Hirugarrenen alta»ren dokumentua elektronikoki izapidetu ahal izango dute, egoitza elektronikoa erabilgarri dagoen zerbitzuaren bidez, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/altaterceros>. Onuraduna adin nagusikoa bada, berak bete beharko du agiri hori, eta berak izan behar du banku-kontuaren titularra. Aldiz, bekaren onuraduna adingabea bada, hirugarrenaren alta amak, aitak edo legezko tutoreak egingo dute, eta horiek izango dira banku-kontuaren titullarrak.

– Ikastetxeek hau erantsi behar dute: enpresarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmena (deialdi honen II. eranskina).

– Desgaitasuna duten pertsonentzako erreserbatutako plazetarako: dagokion lurralde historikoko foru aldundiko Gizarte Ekintza Sailak edo administrazio publikoko organo baliokideak emandako ziurtagiri bidez egiaztatuko da desgaitasuna. Ziurtagiri horretan jaso beharko da eskatzaileak % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duela.

5.– Erantzukizunpeko adierazpena sinatu behar da, hala ezarrita baitago Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.6 artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.7 artikuluan. Erantzukizunpeko adierazpenaren bidez, betebeharrak hauek egiaztatzen dira:

5.1.– Eskatzaileak ez du izan behar dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko inolako debekurik zigor- eta administrazio-arloan, ez eta laguntzak jasotzeko legezko debekurik ere, sexu-bereizkeriaren ondoriozkoak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoarekin bat etorritik.

5.2.– Eskabideko eta harekin batera doan dokumentazioko datuak egiazkoak izatea, eta betetzea laguntza hauek jasotzeko indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak.

5.3.– Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan zehaztutako egoeraren batean.

5.4.– Beste edozein administrazio edo erakunde publikori nahiz pribaturi helburu berarekin dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskatuz gero eta, hala badagokio, eskuratuz gero, horren berri ematea.

6.– Inskribatzeko unean, egiaztatuko da interesdunak baliozko erabilzailea eta pasahitza dituela Ikasgunean, beharrezkoa izango baita eskaeraren jarraipena egiteko. Hala ez bada, hemen erregistratu beharko da: <https://ikasgunea.euskadi.eus/es/inicio>

6. artikulua.– Eskabideak aurkezteko eta akatsak zuzentzeko epea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Ikasgunean argitaratuko da eskabide akastuna edo osatu gabea duten eskatzaileen zerrenda. Zerrenda horiek argitaratu ondoren hasiko da kontatzen eskabideetan egindako akatsak zuzentzeko hamar egun balioduneko epea, eta adieraziko zaie, hala egin ezean, eskaeran atzera egin dutela ulertuko dela, dagokion ebazpena eman ondoren, urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

7. artikulua.– Bekak emateko prozedura eta bekak baloratzeko eta esleitzeko irizpideak.

1.– Deialdiaren xede diren bekak emateko, norgehiagoka-prozedura erabiliko da, hau da, aurkeztutako eskabideak konparatuko dira, eta lehentasun-hurrenkera bat ezarriko da haien artean, artikuluko honen 2. apartatuan ezarritako balorazio-irizpideen arabera.

2.– Balorazio-irizpideak honako hauek izango dira:

a) Lanbide-heziketako zikloko lehen mailako batez besteko nota, balorazio honen arabera:

- (≥ 9) eta (≤ 10): 2,75 puntu.

- (≥ 7) eta (< 9): 2,15 puntu.
- (≥ 6) eta (< 7): 1,10 puntu.
- (≥ 5) eta (< 6): 0,5 puntu.
- (< 5): 0 puntu.

b) Ikasleak 2021eko abenduaren 31n duen adina, balorazio honen arabera:

- > 25 : 1,85 puntu.
- 21-25: 1,15 puntu.
- 18-20: 0,5 puntu.

3.– Eskabideen arteko berdinketa izanez gero, aplikazio informatikoak egindako ausazko prozedura bat erabiliko da. Eskabidea grabatzeko unean, aplikazio informatikoak eskabide bakoitzari zenbaki oso bat esleituko dio, 1 eta 9.999.999.999 bitartekoa, eta zenbaki hori erabiliko da berdinketak desegiteko. Zenbaki txikienari emango zaio lehentasuna.

4.– Aurreko irizpideak aplikatuta baloraziorik handiena lortu dutenen artean egingo da esleipena, agindu honen 3. artikuluan ezarritako kreditu erabilgarria agortu arte.

5.– Betekizunak betetzen dituzten gainerako beka-eskatzailleak onuradun ez badira erabilgarri dagoen kreditua agortu delako, erreserba-zerrenda batean sartuko dira, eta, hasiera batean beka esleitu zaien pertsonen artean baxerik badago, zerrenda hori erabiliko da. Zerrenda hori puntuazio handienetik txikienera ordenatuko da.

6.– Bekaren onuraduna ez bada enpresan sartzan, erreserba-zerrendako lehen pertsonari esleituko zaio beka, zerrendan ezarritako hurrenkeraren arabera.

8. artikulua.– Deialdiaren kudeaketa.

1.– Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzak kudeatuko du deialdi hau.

2.– Xede horretarako sortutako ebaluazio-batzorde batek baloratuko ditu dirulaguntza-eskabi-deak, eta honako hauek osatuko dute batzorde hori:

- Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzako bi teknikari; horietako bat batzordeburua izango da, eta bestea, idazkaria.

Batzordeburua: Lanbide Heziketako Zerbitzuaren arduraduna.

Idazkaria: Tamara Navarro Tobalina, Lanbide Heziketako zerbitzuko teknikaria.

- Hezkuntza Sailaren lurralde-ordezkaritza bakoitzeko teknikari bat.

Araba: Mikel Imaz Gorrotxategi.

Bizkaia: Beatriz Aranaga Elorriaga.

Gipuzkoan: M.^a Teresa Lizartza Urrestarazu.

3.– Balorazio-batzordeak, aurkeztutako eskabideak baloratu ondoren, bekak emateko ebazpena proposatuko dio Plangintza eta Antolaketako zuzendariari, bai eta erreserben zerrenda ere. Zerrenda horretan, bekarik lortzen ez duten pertsonak sartuko dira, puntuazio handienetik txikie-

nera ordenatuta. Ebazpen horren aurka, alegazioak aurkeztu ahal izango dira, 10 eguneko epean, eta batzordeak aztertuko ditu, Plangintza eta Antolaketako zuzendariari deialdiaren behin betiko ebazpena proposatu aurretik.

9. artikulua.– Prozeduraren behin betiko ebazpena.

1.– Plangintza eta Antolaketako zuzendariak ebatziko du deialdia, ebaluazio-batzordearen proposamen arrazoitua jaso ostean.

2.– Esleipen-ebazpena Ikasgunean argitaratuko da, eta jakinarazpen gisa balioko du. Halaber, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da denek jakin dezaten.

3.– Halaber, erreserba-zerrenda ere Ikasgunean argitaratuko da. Bekaren esleipenduna enpresan sartzan ez bada erabiliko da erreserba-zerrenda, eta bertako lehen pertsonari emango zaio beka.

4.– Beka hauek emateko gehieneko epea hiru hilekoa izango da eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori iragan eta ebazpen espresurik eman ez bada, eskabidea ezetsizat jo ahalko da.

5.– Prozeduraren ebazpenak ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, haren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakiok Lanbide Heziketako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena Ikasgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

10. artikulua.– Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorra.

1.– Eusko Jaurlaritzak Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean alta emango die beka hauen onuradunei, Prestakuntza-programetan parte hartzen duten pertsonak Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean sartzeko baldintzak arautzen dituen urriaren 24ko 1493/2011 Errege Dekretuaren arabera.

2.– Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzak kudeatuko ditu beka hauen onuradun diren ikasleen altak eta bajak.

3.– Aldi baterako ezintasunen bat edo lan-istripuren gertatzen denean, ikastetxeek berehala jakinarazi beharko diote horien berri Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzari.

11. artikulua.– Bekak ordaintzea.

1.– Behar diren laguntzak zuzenean ordainduko zaizkio onuradunari, banku-transferentzia baten bidez, bi ordainketa-agindutan.

2.– Lantokiko prestakuntza amaitu ondoren, eta ikasleak enpresan benetan hasi direla egiaztatu ondoren, beka osoaren % 80 ordainduko da (1.440) euros.

3.– Gainerako % 20a (360) euro enpresak eta praktiketako tutoreak sinatutako balorazio- eta asistentzia-txostenaren ondoren ordainduko da. (deialdi honen III. eranskina).

12. artikulua.– Kontzesioa aldatzea.

1.– Dirulaguntza ematea ekarri duen ebazpena aldatu ahal izango da baldin eta dirulaguntza emateko kontuan izandako baldintzaren bat aldatzen bada, eta, betiere, horrekin batera bestelako administrazioen edo erakunde publiko edo pribatuen dirulaguntzak eskuratzen badira, edo, bestela, helburu bera aurrera eramateko bestelako diru-sarrerara edo baliabideak lortzen badira, betiere dirulaguntzaren arauak onuradun izateko ezartzen dituen gutxieneko baldintzak betez gero. Hori guztia jaso egin beharko da dirulaguntzak erregulatzen dituzten arauetan.

13. artikulua.– Ez-betetzeak eta itzulketa-prozedura.

1.– Jasotako dirulaguntzak itzuli beharko dira, eta horiekin batera, dirulaguntza ordaintzen denetik itzuli beharra dagoela erabaki arteko berandutze-interesak, baldin eta artikulua honetako 3. apartatuan aipatzen den egoeraren bat gertatzen bada.

2.– Dirua itzultzeko, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako prozedura beteko da. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorraren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen da eta horien kudeaketan parte hartzen duten entitate laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dira. Hori gorabehera, bideratu beharreko beste ekintza guztiak bideratu ahal izango dira. Aipatutako kopuru horiek diru-sarrera publikotzat joko dira, legezko ondorio guztietarako.

3.– Dirulaguntza eta dagozkion interesak itzuli beharko dira, baldin eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37 artikuluan azaldutako egoeren bat gertatzen bada, eta, bereziki, honako hauek:

a) Balorazio- eta asistentzia-txostenak egin ostean egiaztatuta geratzen bada enpresako benetako egonaldia hiru hilekoa baino laburragoa izan dela, bekaren zenbatekoa birkalkulatuko da denbora horrekiko proportzioan, eta aldea itzuli beharko da. Egonaldia hilabetetik beherakoa izan bada, ordaindutako zenbateko osoa itzuli beharko da.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kontura emandako dirulaguntzen onuradunei dagokien betebeharren bat betetzen ez bada.

Betebehar horiek ez betetzeak bestelako zehapenak ezartzea ere ekar dezake.

14. artikulua.– Beka hauen onuradunen betebeharrak.

Betebehar hauek dituzte beken onuradunek:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, onuradunek, hamabost egun naturaleko epean –deialdiari buruzko ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera–, berariaz eta idatziz dirulaguntzari uko egiten ez badiote, onartutzat joko da.

b) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, beren eginkizunetan dihardutela, deialdi honen kargura jasotako dirulaguntzei buruz eskatzen duten informazioa ematea.

c) Baja medikoa (ABE/LI) gertatuz gero, bajaren parte aurkeztea ikastetxean, intzidentea gertatu eta hurrengo 24 orduko epean.

d) Gainerako legezko betebeharrak betetzea, batik bat Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.2 artikulua eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikulua ezarritakoak.

15. artikulua.– Bateriaezintasuna.

1.– Agindu honetan ezarritakoaren arabera emandako laguntzak bateragarriak izango dira administrazio publikoek zein erakunde publikoek edo pribatuek –estatuko zein nazioarteko– helburu bererako emandako laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, betiere emandako dirulaguntzen zenbatekoak guztira ez badu gainditzen diruz lagundutako jardueren kostua.

2.– Dirulaguntza hauek ezin izango dira bateratu lan-jarduera ordainduekin.

16. artikulua.– Datu pertsonalen babesari buruzko oinarrizko informazioa.

Zure datu pertsonalak tratatu eta izen honetako tratamenduari dagokion jardueran sartuko dira: Lanbide-heziketarekin lotutako laguntza eta dirulaguntzak.

1.– Arduraduna: Hezkuntza Saileko Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritza.

2.– Helburua: Enpresa-egonaldietarako bekak, 2022-2023 ikasturtean, irailetik martxora bitartean, lantokiko prestakuntzako modulua egiten duten lanbide-heziketako ikasleentzat.

3.– Legitimazioa:

– Interes publikoaren alde edo tratamenduaren arduradunari esleitutako ahal publikoak erabiliz egindako misioa betetzeko behar den tratamendua.

– 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

4.– Hartzaileak.

– Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

– Ekonomia eta Ogasun Saila.

5.– Eskubideak: Onuradunek eskubidea dute datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

6.– Informazio gehigarria: Datuen babesari buruzko informazio gehigarria eta xehea duzu gure web-orrian: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/047400-capa2-eu.shtml>

7.– Araudia:

– Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673>).

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean. Bi epeak deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko dira.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 26a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

2022ko irailaren 14a, asteazkena

I. ERANSKINA
ESKABIDEA
LH-KO IKASLEEK ENPRESA-EGONALDIAK
EGITEKO BEKA

DATU AKADEMIKOAK				
Dok. Hezkuntza-identifikatzailea:	Ikastetxearen kodea:	Ikastetxearen izena:		
Herria:	Lurraldea:	Ikasketa-plana:	Kurtsua:	Maila:
Espezialitatea:		Hizkuntza-eredua:	Txanda:	Modalitatea:
1. ikasturteko batez besteko nota:				
IKASLEAREN DATU PERTSONALAK				
Izena:	1. abizena:	2. abizena:	NAN / AIZ:	
Jaioteguna:	2022ko abenduaren 31an duen adina:		Sexua: <input type="checkbox"/> G <input type="checkbox"/> E <input type="checkbox"/>	Harremanetarako telefonoa:
Erroldako bizilekua				
Helbidea:			Eskailera: ____ Solairua:	Eskua: ____ Atea:
Posta-kodea:	Herria:	Udalerria:	Lurraldea:	
Ikaslearen / aita-ama-legezko tutorearen bankuko datuak (1)				
Titularraren NAN/AIZ:	1. abizena:	2. abizena:	Izena:	
Kontuaren IBANa:				
Gizarte Segurantzako zenbakia (2)				
Hirugarren aita	http://www.euskadi.eus/alta-modificacion-datos-terceros/web01-s2oga/es/ (3)			
Abisu telematikoa datuak				
Telefono mugikorra:	Helbide elektronikoa:	Jakinarazpenaren hizkuntza: <input type="checkbox"/> Gaztelania <input type="checkbox"/> Euskara		
NAHITAEZKO EREMUAK				
(1) Hemen ezin da jarri pasaportearen zenbakia. NANA edo AIZA baino ez dira onartuko.				
(2) Beka hauek eskatzen dituzten ikasle guztiak izan beharko dute Gizarte Segurantzako zenbakia. Hala ez bada, eskabidea egin aurretik eskatu beharko dute Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalan.				
(3) Onuraduna adin nagusikoa bada, hirugarrenaren altaren orrian betetzen diren datuak onuradunaren berarenak izango dira. Onuraduna adingabea bada, datuak onuradunaren amarenak, aitarenak edo legezko tutorearenak izango dira. Datuek bat etorri behar dute eskabide honetan sartutako banku-datuekin.				
ENPRESAREN DATUAK				
Enpresaren izena:			Lurraldea:	
Declaraciones responsables				
Nik, jaunak/andreak (NAN zk.:), honako hau				
ADIERAZTEN DUT:				
<ul style="list-style-type: none"> ◆ Eskatzaileak ez duela dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko debekurik zigor- eta administrazio-arloan, ez eta laguntzak jasotzeko legezko debekurik ere, sexu-bereizkeriaren ondoriozkoak espresuki banean hartuta, Emakumeen eta Gizoneen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoarekin bat etorri. ◆ Eskabideko eta harekin batera doan dokumentazioko datuak egiazkoak direla, eta betetzen direla laguntza horiek jasotzeko indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak. ◆ Ez dagoela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan zehaztutako egoeretako batean ere. ◆ Helburu berarekin beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emandako dirulaguntzak, laguntzak, dirua edo baliabideak eskatuz gero eta, hala badagokio, eskuratzuz gero, horren berri ematea. 				
<i>Lanbide Heziketako Sailburuordetzak, zuzenean edo Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzaren bidez, dagokionaren arabera, aurkeztutako datuak erkatu eta behar diren egiaztatpenak egin ahal izango ditu dirulaguntzak behar bezala esleitzeko.</i>				
BAIMENAK:				
<input type="checkbox"/> Erantzukizunpeko adierazpenak onartu eta ulertzen ditut.				
....., 2022koarena.				
Eskatzailearen sinadura				
ESKABIDEAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA:				
<i>Ikastetxean edo telematikoki: 2022ko irailaren xx(e)tik 2022ko urriaren xx(e)ra bitartean.</i>				
<i>Eskara honekin lotutako beste edozein kontsulta egiteko, ikaslearen ikastetxera jo beharko da.</i>				

6.– Datuak babesteari buruzko informazioa**Arduraduna:** Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritza **Legitimazioa:** 5/2002

Lege Organikoak tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoa egikaritzea. Gaiko eskumena duten

Administrazio publikoari eman dakizkieke datu pertsonalak.

Eskubideak: Eskubidea duzu datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko eta datuen tratamendua mugatu eta haren aurka egiteko. Eskubide horiek egikaritzeko, tratamenduaren arduradunarengana jo behar duzu; horretarako, idazki bat bidali beharko duzu Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzara (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

II. ERANSKINA

ENPRESAREN ETA IKASTETXEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEEK EGONALDIRAKO BEKA IZAN DEZATEN ABENDUTIK MARTXORA BITARTEAN, 2022-2023KO IKASTURTEAN.

Batetik, andreak/jaunak, ikastetxeko titularra, eta, bestetik, andreak/jaunak, enpresaren ordezkaria, biek izenpetzen dute lankidetzaren hau, zeinaren xedea baita ikasleei aukera ematea, beka hauen bidez, dagokien titulua eskuratzeko behar dituzten kompetentziak, gaitasunak eta trebeziak lortzea.

KLAUSULAK

- 1.– Ikasleek ezin izango dute inolako lan-lotura edo -harremanik izan egonaldia egin behar duten enpresarekin.
- 2.– Enpresak ez die emango ikasleei inolako lansaririk bekaldian zehar egiten dituzten jardueren truke.
- 3.– Eusko Jaurlaritzak alta emango die bekaren onuradunak diren ikasleei Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean.
- 4.– Lantokian, edo, hala badagokio, jarduera edo lekualdaketa egiten den lekuetan gertatzen den edozein istripu izanez gero, Mutualiara bideratuko da.
- 5.– Enpresa arduratuko da laneko segurtasunari eta higieneari dagokienez ikasleei aplikagarri zaien legeria betetzeaz.
- 6.– Enpresak trebakuntza egokia duten beharrezko irakasleak izendatuko ditu, ikasleen prestakuntza koordinatzeko eta garatzeko.
- 7.– Prestakuntza-plana, bat etorri dagokion heziketa-zikloaren curriculumean definituarekin, ikastetxeko tutoreak eta enpresako instruktoreak ezarriko dute elkarrekin.
- 8.– Ikastetxeko tutoreak gainbegiratu du zer-nolako lana egiten duten ikasleek.
- 9.– Ikasleek ez dute astean 35 ordu baino gehiago igaroko enpresan.

.....(e)n, 2022ko.....aren(e)(a)n

IKASTETXEAREN TITULARRA

ENPRESAREN ORDEZKARIA

2022ko irailaren 14a, asteazkena

III. ERANSKINA

BALORAZIO- ETA ASISTENTZIA-TXOSTENA

(enpresako instruktoreak bete behar du)

AINTZAT HARTZEKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
	1	2	3	4	5
<i>Egin behar den atazarekiko interesa eta prestasuna</i>					
<i>Jarduera / praktika egiteko erantzukizuna</i>					
<i>Ataza garatu eta zentratuta egoteko gaitasuna</i>					
<i>Praktikak egiteko autonomia</i>					
<i>Segurtasun-arauekiko errespetua</i>					
<i>Ataza egiteko trebetasuna</i>					
<i>Egin behar diren atazekiko jarrera positiboa</i>					
<i>Ataza horietarako konpetentziak barneratzeko gaitasuna</i>					
<i>Lantaldeko integrazioa – Talde-lana</i>					
<i>Beste batzuk</i>					

BEKETAKO/PRAKTIKAKO INSTRUKTOREAREN BESTE OHAR / IRUZKIN BATZUK:

--

ASISTENTZIA-KONTROLA (falten partea):

Eguna/k (data)	Justifikazioa				
	<table border="1"> <tr> <td>Instruktorearen oniritzia</td> <td></td> </tr> <tr> <td>Data</td> <td></td> </tr> </table>	Instruktorearen oniritzia		Data	
Instruktorearen oniritzia					
Data					
	<table border="1"> <tr> <td>Instruktorearen oniritzia</td> <td></td> </tr> <tr> <td>Data</td> <td></td> </tr> </table>	Instruktorearen oniritzia		Data	
Instruktorearen oniritzia					
Data					
	<table border="1"> <tr> <td>Instruktorearen oniritzia</td> <td></td> </tr> <tr> <td>Data</td> <td></td> </tr> </table>	Instruktorearen oniritzia		Data	
Instruktorearen oniritzia					
Data					

.....(e)n, 2023ko.....aren(e)(a)n

Sin.: (instruktorearen izen-abizenak)

Sin.: (instruktorearen izen-abizenak)